

Ekonomia zirkularrean berrikuntza txertatzeko dirulaguntzek babestutako proiektuak (2022)

1. ildoak: Ekonomia Zirkularreko Ekodiseinua eta Erakustaldia

Liderra	Akronimoa	Proiektua
ULMA C Y E, S.COOP.	PASOCON	Panel jasangarriak eraikuntzarako, plastikozko hondakin termoeogonkor indartuetatik eta beste material organiko batzuetatik abiatuta.
FURESA, S.COOP.	LIGHTDIE	Malgutasuna, jasangarritasuna eta galdaketa nodularra egiteko moldeak optimizatzea, arren bidez zuzenean ekoizitako moldeekin.
HANSON HISPANIA HORMIGONES, SL	EKODOCK	HORMIGOI ARMATUAREN ordezkari UHPCFR jarri izanaren erakustaldia ur gaineko itsas kutxetan.
BOSTLAN, SA	ALUCYCLE	Hondakin laminatuen polietilenoa eta purutasun handiko aluminioa berreskuratzeko prozesu alfilaren industrializazioa.
SIDENOR ACEROS ESPECIALES, SL	SLUDGEBRICK	Lohiak eta txirbilak aprobetxatzea, briketak fabrikatzeko.
KIDE, S.COOP.	ECOREFRI	Hotz gamaren produktu berria garatzea, hozgarri naturalekin eta ingurumenari begira jasangarriak direnekin.
MONDRAGÓN COMPONENTES, S.COOP.	iWEEE-Loop	Bitrozeramika gainazalen industriako balio katean tresna eta osagai elektriko eta elektronikoak berreskuratzeko plataforma adimenduna garatzea.

2. ildoak: Ekoberrikuntza estrategikoa

Liderra	Akronimoa	Proiektua
SOCIEDAD FINANCIERA Y MINERA, SA	NEUSBED	Mineralizazio digitalizatuko prozesuaren eskalatzea lortzera bideratutako ekoberrikuntza (NEUclimem), Spouted BED motako erreaktorearen bidez, zementuaren sektorean neutraltasun klimatikoa duten agertokietarantz aurrera egiteko.
VIUDA DE SAINZ, SA	INDUTRAC	Trazabilitate eta kuantifikazio sistema adimendunen garapena.
ARCELORMITTAL SESTAO, SL	RESCAR4EAF	Karbono hondakinen funtzio anitzeko injektorea, arku labe elektrikoan altzairu berdea fabrikatzeko.

3. ildoak: ETE zirkularra

Bitarteko agentea	Akronimoa	Proiektua
AFM Cluster	MTPRINT	Proiektuaren helburua da Makina-Erremintaren sektoreak deskarbonizaziorantz elkarrekin aurrera egitea, modu espezifikoan garatutako esparru komun batekin. Horretarako, Karbono Azterna Korporatiboaren tresna bat garatuko da sektorerako berriazkoa, bizi zikloaren ikuspegiarekin, produktu mailako emaitzak erlatibizatuta eta estandar nagusiekin lerrokatuta.
EAEko eta Nafarroako Fundizioen Elkarte	MTPRINT	Proiektu honen helburu nagusia da Erakundearen Europako Ingurumen Azterna kalkulatzeko metodologia (Organizational Environmental Footprint – OEF) galdaketaren sektoreko euskal ETEei modu koordinatuan aplikatzea, horretarako garatutako berriazko tresna baten bidez.
Aclima	AR-CAV-EPD	Proiektuaren helburua da Produktuaren Ingurumen Adierazpena (DAP-EPD) garatzea, Euskal Herrian dauden lantegietatik datorren jatorri birziklatuko agregakinen sektorekoa .

Hegan	ZEROCO2	Deskarbonizaziorantz orientatuko dituen Bide Orria definitzea. Bide Orri hori definitu ahal izateko, Erakundeko Karbono Azterna kalkulatzeko tresna bat garatuko da, bai eta horrekin lotutako gida bat ere. ACARE-SRIA 2030 estrategian ezarritako helburuak hartuko dira kontuan, baita Flightpath 2050 eta Destination 2050 ikuspegi europarrekoak ere.
AVEQ-Kimika	SSbD	Proiektu pilotu bat da, Segurtasun eta Jasangarritasun Ebaluazioak egitea ahalbidetuko duena, SSbDren metodologia oinarri hartuta, halako moldez non produktuen errendimendua ikusi ahal izango duten “Diseinutik bertatik Segurtasuna eta Jasangarritasuna (SSbD)” irizpideen gaitetik.
Euskadiko Elikadura Klusterra	INGURULABEL	Proiektuaren helburua da produktuaren ingurumen azterna kalkulatzeko , azpisektore hauetan diharduten 7 ETE parte hartzaileetako bakoitzean: edari, esneki, ogi eta errotaritzako fabrikazioa, eta fruta eta barazkien prozesatzea.
Euskadiko Paperaren Kluster Elkarte	PAPER CTI	Proiektuaren helburu nagusia da paperaren sektoreko enpresetan zirkulartasuna neurtzea. Horrekin, enpresen jasangarritasuna hobetu nahi da, bai eta haien karbono azterna murriztu eta lehiakortasuna hobetu ere.
ASLE Enpresa Elkarte	CICLO	Proiektuak helburu bikoitza du; alde batetik, ibilbide orri global bat sortu nahi du sektore anitzeko ETE industrialak pixkana-pixkana zirkularizatzeko eta deskarbonizatzeko, Circular Roadmap tresnaren bidez; eta, bestetik, berariazko aholkularitza zerbitzua eman nahi da Circular Business Profile tresnaren bidez. Tresna horrek enpresa bakoitzari bere zirkulartasun egoera ezagutzen, dauzkan aukerak eta arriskuak aztertzen eta horietan jarduten lagunduko dio, bakoitzak bere arloan lider zirkular bihurtzeko behar duen ikuspegia garatu ahal izateko.
Debegesa	IDCPD	Proiektu honen helburua da Debabarrena eskualdeko ETEei beren BEG emisioak ezagutzen eta interpretatzen laguntzea eta horiek murrizteko erabakiak hartzea, Produktuaren Karbono Azterna (HCP) eta Erakundeko Karbono Azterna (HCC) kalkulatu, emaitza horiek interpretatu eta produktuaren edo erakundearen BEG emisioak murriztu ahal izateko hobekuntza plana eginez.
Habic	HABICCA-TOOL	Proiektuaren helburua da Ingurumen Azterna Korporatiboa (HAC) kalkulatzeko ad-hoc tresna bat garatzea, hainbat inpaktu kategoriatan parte hartzen duten ETEen portaera ebaluatuko duena (klima aldaketarako potentziala, ur kontsumoa edo baliabideen agortzea , besteak beste).
Uggasa	Urola zirkularra	Proiektuaren helburua da Urola Erdia eta Urola Garaia eskualdeetako ETE parte hartzaileetan Ekonomia Zirkularrari (EZ) lotutako aukera eta merkatu hobi berriak identifikatu, baloratu eta lehenestea , aukera horiek bultzatzeko EZren ekintza plan indibidual bat sortuz.
Eraikune	GESTKONT-LUR	Parte hartzen duten ETEei lagunduko dien tresna bat ezartzea, lurzoru kutsatuko kokalekuak dituzten hirigintza garapenetan erabakiak hartzeko. Helburua da tresnak enpresa parte hartzaileei aukera sorta berri bat ematea, indusketaz eta isurketaz haratago lurzoru kutsatuak kudeatu ahal izateko.

Deskargatzeko modukoak

- EHHA
- EHAA
- 2204510a
- 2204510e